

## BAKE MEZUAREN GARRAIOLARI

Irati Goikoetxea

*Beasain, 12 urte*

Plastiko gogor eta aldi berean malgu batez, arraultza forma eman didate, ondoren, ikatzairen kolorea margotuz. Zilbor parean, hizki dotoreez apainduriko etiketa josi didate, “MAGNO Gel De Baño y Ducha” jartzen duelarik. Urduri nago eta galdera hauek egiten dizkiot neure bururari: “Zer ote? Nolako usaina eta nolako zaporea izango du Gel delako horrek?”.

Aurreko bizitzan isurki erregarri eta atzera botatzeko moduko usaina neraman nire barnean. Orain, inolaz ere ez nuke nahi horrelakorik garraiatu. Ez du luzaro iraun egoera zalantzarri honek, berehala nire sabel hutsa bete baitute, eta nire zorionerako, oraingo honetan ume jaio berri baten ipur masaila bezain leuna eta lorategiko jazminen usaina baino gozoagoa den isurki bat egokitu zait.

Handik pixka batera, kremailezko makina batean kamioetarantz zuzendu gaituzte inurrien antzera, launakako iladetan, prozesioan bagindoaz bezala. Bidaia hamasei toneladako “Trailer” handi eta luze batean egin dugu. Kantari, zorabio batean eta barneko isurki apartsua gain egitera doanean, zorioneko bidaia bukatu eta bost minuturako “Prika” izeneko denda handi bateko apaletan aurkitzen naiz. Bertan, bizpahiru egun kontu kontari egin ostean, gizon bizardun eta giharrak —itxuraz

kirolariak— hartu nau bere esku eta beroetan, zuzenean karro batean sartuaz, azukre, txokolate, esne eta komuneko paperen tartean.

Dendatik, etxera eramán gaitu bere "Ford" gorrian.

Bi egunez behin, etxeko nagusiak erabiltzen nau eta esango nuke oso gogoko nauela. Etxe honetan, hogeihogeiata bost egun egin ditut alai eta gustura. Jabea, gainera, umore onekoa suertatu zait. Dutexan, bertsoak eta Benito Lertxundiren kantak abestuz pasatzen du denbora. Azkenean, nire sabela erabat hustu denean, beste hondakin eta zabor batzuekin batera jarri naute harraska azpian. Hau kiratsa! Zerbait ustela egongo dela pentsatu dut. Eskerrak sudurrak erdi estaliak ditudan, bestela, bertan ziplo geldituko nintzateke. Hau gutxi balitz, bestalde, iturbideak itukina du eta txita moduan blai eginda nago.

Halako batean, hormaerlojuak zortzi kanpaikada jo dituenean, amaren agindupean, etxeko mutil koxkorra kexuka, zabor poltsa hartu eta hor abiatu da denok norabide finkorik gabe bidaiatzera garamatzala. Urduri nago, hankak dardara batean, fandangoa dantzatzen arituko banintz bezala eta honela galdetzen diot neure buruari: "Nora eramango ote nau? Berziklatze edo zabor ontzira? Nik, bizitzen jarraitu nahi dut, beste aukerak pentsatzeaz bakarrik, bihotza saltoka irten beharrean jartzen zait". Laurogeita bost, sei, zazpi, zortzi... zenbatu dizkiot Iñakiri zaborrontziraino.

Ontzia gainezka dago eta mutikoak lurrean utzi gaitu. Nire burua ontzitik kanpo ikustean, urduri-

tasuna zertxobait baretu zait. Hala ere, nerbioak oraindik pilpilean ditut.

Janariaren usainean, kale txakur bat inguratu da gosca asetu nahian eta opari eder bat bereiztu asmoz, bere hortz zorrotz eta beldurgarriez heldu eta hogeit bat metrora eraman nau espaloi erdian utziz.

Hotz handia pasatzen ari naiz eta oraingo hone-tan, Julen Gerrerok jaurtiko lukeen moduko osti-kada eman dit neskabila batek. Ipurdian, mina senti-tu dut eta lehengo hamar durokoen neurriko ubeldura atera zait. Bestalde, hotza gutxi balitz, zerua, hodei beltzez estalia dago eta pixka batera harrika hasi da, izugarrizko ekaitza nagusitu dela-rik. Trumoi eta tximistek festa beldurgarria presta-tu dute. Eskerrak, gauerdialdera, haizeak dantzaka darabiltzan hostoak gainera etorri zaizkidala, bes-tela, bertan neumonia harrapatzeko zorian bai-nengoke.

Gaua luze joan da eta eguzkiaren lehen printzak oso gustora hartu ditut. Zortzi eta erdietan, eskola-ko haurrak tropelean, korrika eta zalapartaka ni zapaldu beharrean pasatu direnean, ia arnasarik gabe utzi naute. Ene! Bake ederra denek alde egin dutenean.

Hamaikak izango dira hamar urteko neskabila batek nire gorputzarekin estroputz egin eta age-rian gelditu naizenean. Eskuetan hartu nau eta lurrera botatzen ninduen une berean belarritik belarriraionoko irrifar zabal bat egin diot. Neskabilak zerbait harrigarria antzeman du eta berarekin eraman nau.

Geroxeago jakin dudanez, eztarriko minez eta sukarrarekin sendagilearengana joana zen. Neskak, Amaia du izena, sentibera da eta badirudi oso garbi duela nirekin zer egin. Bere gelan sartu da, ontzi baten barnean ipini eta jaboï pixka batez garbitu nau. Ondoren, mila kolorez hornitu eta panpinen artean utzi nau. Bitartean berak, ontzi zuri eta garbi batean mezu bat idatzi eta bukatzean nire sabelean gorde du. Laranja zukua hartu eta oheratu da. Ni, jakinminez nago, zer idatzi ote duen pentsatuz. Azkenean, kostata baina irakurtzea lortu dut eta erabat txunditurik nauka. Munduko agintariei zuzendua dago eta bertan, gerra eta goscaren amaiera eskatzen zaie. Benetan hitz eder eta balio handikoak dira.

Hurrengo orduak oso zoriontsuak izan dira, hasira batean panpinei nigana hurbiltzea kosta bazaie ere, poliki-poliki elkarren konfidantza hartzen joan gara eta jolasean bukatu dugu. Aspaldian ez nuen hain ongi pasatzen.

Amaia, arratsaldeko bostetan esnatu da, eta argi ikusten zaio sukarrik ez duela. Ongi jantzi da, horetik babes dadin eta ni eskuetan naramala kalera irten da udazkeneko haize epela pixka bat dastatzera. Bidean, bi lagun agurtu ostean, hondartzarantz abiatu da. Urduri xamar nago, oraindik ez baitizkiot bere asmoak igarri. Itsasertzera heldu garenean, hitzik esan gabe muxu bat eman eta ur azalean utzi nau.

Itsas uhinek, barrurantz naramate; Amaia eta atzekaldean dituen etxeek berriz, inurriak dirudite hasiera batean, gero nabarmendu ere ez dira egiten.

Ur gainean lehenengo bi orduak lasaiak bezain aspergarriak joan dira, baina, halako batean, hogeitazentimetroko munstro itsastar bat inguratu zait. Gero, alde guztiak ongi arakatu eta izterrean hagina sartu dit. Nire lasaitasunerako, gustuko jakia ez nintzela ohartzean, berehala alde egin du. Egin didan zulotik, ura sartuz joan zait. Aldi berean, hondoratzen joan naiz eta konortea galtzera nindoala, arrainez inguraturiko sare baten hatzaparretan erori naiz eta arrantzale batzuk itsasuntzira jaso gaituzte.

Hemen, denboraren zentzua galdu dut eta esnatzean, nire harridurarako, berriro Amaiaren etxearekin egin dut topo.

Gero jakin dudanez, arrantzaleek mezua agintarien eskuetan utzi zuten.